



Legazpiko Agenda 21eko Foroaren Akta

2016ko ekainaren 16an, 18:30etik 20:00etara,
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

1. Gaurko tailerraren gaia eta helburua

Egun bat gehiago Foroaren beste saio bat partekatu eta eraiki dugu; saio interesgarria, inspiratzailea eta dibertigarria!

Zeren gainean? Apirilaren 21eko tailerrean landu genuen gaiari heldu diogu berriro: "Legazpi Klima 2030" izena izango duen Agenda 21eko 4. Ekintza-plana egiteko prozesua.

Gogora ekarri dugunez, saio hartan Legazpi gaur egun nola dagoen aztertu zuen Foroak (pertzepzioa). Horrekin eta bestelako azterketekin Legazpiko Udalak, kontratatutako talde espezialistaren laguntzarekin, udalerraren diagnostiko orokorrerako bidea egin du.

Abiapuntua hori izanik, gaurko tailerrak helburu bikoitza izan du.
Honakoak proposatu ditugu:

1. Egin den udalerraren diagnostikoaren gako nagusiak ezagutzea eta kontrastatzea.

- Zeintzuk dira eta nola baloratzen ditugu ondorio nagusiak?

2. 2030eko Legazpiko udalerraren ikuspegia lantzea.

- Zein da 2030ean Legazpirako nahi dugun eszenatokia eta nolakoa izan behar du hori lortuko duen ekintza-plana?



Horrela, "Legazpi Klima 2030" Agenda 21eko 4. Ekintza-planaren oinarri sendoak jartzen goaz, urratsez urrats:

- **Diagnostikoa:** egungo egoera ezagutzetik abiatuko gara.
- **Ikuspegia:** nahi dugun eszenatokia finkatuko dugu.
- **Ekintza-plana:** datozen urteetarako bidea, kokagune nagusiak eta neurriak zehazten saiatuko gara.

Testuinguru horretan, ikus dezagun nola gauzatu den gaurko saioa eta ze emaitzak lortu diren.

2. Parte hartu duten pertsonak

17 pertsona izan dira gaurko tailerrean: gogoz, ilusioz, entzunez eta ekarpenak eginuz. Ikaragarria!



Bizilagunak:

Rogelio Barbeira – Floren Gutierrez – Montse Vallejo – M^a Cruz Lizarazu – Esther Agirre – Edurne Huesa (Ingurugela, Legazpi) – Pedro Agirre – Rafa Gomez (Buskabaso) – M^a Jose Cantero (Nagusilan) – Leire Otaegi (Oripavi) – Juan Carlos Agirre.

Udal arduradun eta teknikariak:

Eric Galvez (zinegotzia) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Iñigo Imaz (zinegotzia) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumen saileko teknikaria)

Laguntzaile teknikoak:

Juncal Fernandez eta Malake Muñoz (Haizea Ikerketa eta Factor CO₂), Legazpi Klima 2030 plana egiteko Udalak kontratatu duen lantaldea - Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio-lanetan.

Eskerrik asko bakoitzari eta guztioi!

3. Legazpiren diagnostikoa, gaur: gako nagusiak

Hasierako kontu garrantzitsua: "Legazpi Klima 2030" Agenda 21eko 4. Ekintza-planak bi premisa utziezin ditu: [iraunkortasuna](#) sustatu behar du eta udalerriko [klima aldaketaren](#) aurka egiteko konpromisoa jaso behar du.

Begirada horretatik, zeintzuk dira egin den azterketatik eta diagnostikotik ateratzen diren ondorio nagusiak? Jarraian, [gako nagusiak](#) azpimarratuko ditugu; datu horiek Legazpiko Udalak eta lantalde teknikoak prestatu duten dokumentazioan ikusi ahal ditugu zehatzago.

Garapen ekonomiko eta lan-merkatua:

- Sortutako balio erantsi gordinean industriak pisua duen arren, zerbitzuen sektorea indarra hartzen ari da –baita sortutako lanpostuen kopuruan ere–.
- Herritarren % 58k Legazpitik kanpo egiten du lan.

 Legazpi
GAUR

Mugikortasuna:

- Mugikortasun Iraunkorrerako Planean aurreikusitako jarduketei esker, asko aurreratu da ondorengo gai hauetan:
 - Oinezkoentzako espazioak irabazi eta hobetu dira.
 - Hiri-gunea auzoekin komunikatu da.
 - Bidegorriaren sarea handitu da.
- Honako arlo hauetan hobetu edo jardun behar da nagusiki:
 - Auzoetako irisgarritasunean.
 - Oinezkoen, bizikletarien eta ibilgailuen arteko elkarbizitzan.

Hondakinak, atmosfera, zarata:

- Hiri-hondakinei dagokienez, bilakaera positiboa da: zabor gutxiago sortzen da eta birziklatzeko bereizten diren hondakinen portzentajeak gora egin du nabarmen.
- Zenbait gunetan industrietatik datorren usain txarra antzematen da.
- Bi gai hauek ari dira lantzen: zaraten Mapa eta kutsatuta egon daitezkeen lurzorua berreskuratzea.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Euskara, kultura, berdintasuna:

- % 68an dago legazpiarren euskararen ezagutza maila; erabilera, aldiz, % 27koa da.
- Udalaren eta herriko taldeen artean lankidetzeta ona dago kultura arloan.
- Gazteriako Zerbitzuetan sakontzen jarraitzen da, gazteen beharrak detektatzeko eta haietara egokitzeko.

Ura:

- Positiboa da bilakaera: etxeko ur kontsumoa eta sareko ur-galerak jaitsi egin dira –baina klima-aldaketak eragina izan dezake eta ur eskaerak gora egin dezakeela aurreikusten da-.

Osasuna:

- Legazpi zahartuta dagoen udalerrria da; herritarren % 24k 65 urte baino gehiago ditu. Eta horrek esan nahi du biztanleria ahulagoa dela klima-aldaketari aurre egiteko.

Hirigintza eta etxebizitza:

- Poliki-poliki gehitzen ari da lurzoru artifizializatua.
- Legazpin ugaria da ingurune naturala –baina ez horrenbeste hiri-lurzorua–.
- Etxebizitzen parkea zaharkituta dago eta egokitu beharra dago –baita energia kontuetan ere bereziki- erosotasuna eta efizientzia bermatzeko.

Energia:

- 2009tik hona jaisten ari da etxebizitzetako eta zerbitzuetako urteko kontsumo elektrikoa. Industriako kontsumoari dagokionez, krisi ekonomikoaren eragina antzematen da.
- Energia berriztagarrien tokiko produkzioa igo egin da zertxobait 2006 eta 2013 bitartean baina eskasa izaten jarraitzen du kontsumoarekiko.

Biodibertsitatea:

- Legazpin flora eta fauna inbaditzailea antzeman da baina neurriak hartzen ari dira horiek kontrolatzeko eta errotik kentzeko.
- Hostozabalak baino ugariagoak dira koniferoak –dezente ugariago–. Eta klima-aldaketak eragin negatiboa izan dezake pagoa bezalako bertako espezieetan.

Klima-aldaketa:

- 2008 eta 2009 artean, asko murriztu zen berotegi-efektuko gasen aireratzea –batik bat, industriaren kontsumo energetikoaren beherakadaren ondorioz–.
- Urte haietatik egonkor mantendu dira igorpenak.
- *A priori* Legazpin mugikortasunaren eredia eta energia arloa dira ekintzetarako aukera handiena eskaintzen duten eremuak, klima-aldaketaren kontuetan.

Legazpiren “egungo argazkia” partekatzeak ezagutzen ez genituen datu batzuk ezagutzea ahalbidetu digu; apirilaren 21eko Foroan jaso genituen pertzepzioak berresteko aukera eman digu; eta, azken finean, datozen urteetan arreta non jarri behar dugun jakiteko balio izan digu.

Aurrera goaz!



4. Legazpi 2030 ikuspegia: nolako udalerria nahi dugu?

“Legazpi Klima 2030” Agenda 21eko 4. Ekintza-planak jomuga ere izan behar du, nora joan nahi duen eszenatokia behar du; baina, hori bai, beti iraunkortasunean eta klima-aldaketaren aurka borroka egiteko konpromisoan oinarrituta.

Horregatik, diagnostikoa landu ondoren ikuspegian zentratu gara: **nolako Legazpi nahi dugu 2030ean?** Nolako udalerria izan nahi dugu? Ze balio eta ñabardurek bulkatzen gaituzte?

Taldean ikuspegi horren giltzarriak zehazten joan gara, hausnarketarako balio izan dizkigun galderetan oinarrituta:



Legazpi
2030

- **Nahi ez dugun eszenatokia eta nahi duguna:**
 - Nolako Legazpi EZ dugu nahi 2030ean?
 - Nolako Legazpi NAHI DUGU 2030ean?
- **Bidaia denboran:** irudika dezagun, urte batzuk herritik kanpo pasatu ondoren, 2030ean Legazpira iristen garela trenez.
 - Trenetik jaitsi bezain pronto urte batzuk lehenago irudikatu genuen Legazpi dugula begien aurrean ohartzen gara. Zer da ikusi, entzun, sentitu duguna hori horrela dela esateko?
 - Aurrean dugun eta nahi dugun Legazpi kolore bat izango balu, zein izango litzateke eta zergatik? Eta animalia bat izango balitz, zein izango litzateke eta zergatik?
 - Legazpi berri horrek zein beste lurralderen antza du? Eta zergatik?

Jarraian, Foroaren erantzun multzoa.

2030eko Legazpirako nahi ez dugun eszenatokia eta nahi duguna:

2030eko Legazpirako NAHI EZ DUGUN eszenatokia...

- Gazteek udalerrian bertan lan egiteko aukerak ez izatea eta kanpora joan beharrean egotea.
- Lo egiteko udalerria izatea.
- Kalitatezko eta doako zerbitzu publikoak galdu duen herria izatea: pilotalekua, kultura, adineko pertsonentzako zentroa,
- Ibai eta erreka zikinak dituen.
- Biodibertsitatea galdu duena.
- Bizitzeko segurua ez dena; biztanleak beldurrez bizi diren herria izatea.
- Kutsatuta dagoena: airea, ura...
- Gure adineko pertsonen zerbitzu egokiak eskainiko ez dizkiona; pobrezian bizi den udalerria izatea, batik bat adineko pertsonen dagokienez.
- Energiaren, elikagaien, mendekotasunean bizi den herria izatea.
- Merkataritza ez duena.
- Aspergarria izatea, bere dinamismoa, jarduera, bizilagunen parte hartzea,... gutxitzea ikusi duen herria izatea.
- Herri euskaldun eta elebidun ez izatea; euskara onartua eta normalizatua ez duen udalerria izatea eta bertan euskaraz hitz egitea eta ulertua izatea oraindik ere zaila izango den herria izatea.
- Dibertsitatearekin –jatorria, izateko erak, pentsatzeko erak,...– anitza edo tolerantea ez dena.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagertzea lortu ez duen herria izatea.

Aitzitik, hauxe da 2030ean Legazpirako NAHI DUGUN eszenatokia...

Hasierako OHARRA: nahi ez dugun eszenatokirako adierazi ditugun ezaugarri guztiak honetarako ere balio dute, alderantziz jarrita.

Eta, gainera, horrelako Legazpi nahi dugu:

- Irekia, pertsonekin eta oro har kulturarekin eskuzabala.
- Emakumeekin eta gizonekin berdina dena, batik bat lan-munduan.

(jarraitzen du)

- Ongi hezia, kultura, balioak dituen, elkarbizitzarako herria eta besteak errespetatzen dituen.
- Boluntario asko dituen.
- Bere kultura eta identitatea mantentzen duena.
- Naturarekin bat egiten duena: baratze komunitarioekin,...
- Konifera gutxiago dituen eta paisaian bertako espezieak dituen.
- Aukera gehiago eskaintzen duen herria, garraio publikoa gehiago erabiltzen duena eta bizikletan eta oinez dabilena.
- Konektatuta eta teknologia berrietan "eguneratuta" dagoena.
- Osasun eta Hezkuntza arloetan profesional onak dituen.
- Kirola egiten duena: osasuntsua delako, denbora librean,...
- Kontsumo-ohitura arduratsua duena, berdea.
- Bere balioak eta baliabideak ezagutzen dituen, bere eredu ekonomikoa ezartzean honakoak balioetsi dituen:
 - Industria garbiagoa izatea.
 - Lan- eta aberastasun-iturri gisa balioztatutako baliabide naturalak izatea: Aizkorriko parke naturala, baso-kudeaketa iraunkorra, turismo iraunkorra...



Bidaia, 2030an nahi dugun Legazpira:

Non jartzen dugu arreta lehenengo aldiz ikusten dugunean?

- Ibai garbiak.
- Berrikuntza soziala.
- Trenetik arazorik gabe jaisten naiz: irisgarria da.
- Jende asko.
- Alaitasuna.
- Lasaitasuna.
- Natura.
- Autobus-zerbitzua dago geltokira joateko eta bertatik herrira joateko.
- Geltokirako bidean jendea dabil pasieran, haurrak ginenean bezalaxe.
- Herrian ez dira autoak ikusten.
- Legazpi iritsi-erraza (irisgarria) da eta eroso.
- Ibaia garbia dago, irekia.
- Jende langilea.
- Jendea dago kalean.
- Haurrak jolasean daude jolas-gune egokietan.
- Energia berriztagarria duten instalazioak.
- Jende asko oinez doaz hara eta hona.
- Bisitariak daude.
- Paisaia autoktonoa, bertakoa.
- Herria garbiago dago.
- Belar usaina dago.
- Hostozabalen basoak daude.

Aurrean dugun eta nahi dugun Legazpik kolore bat izango balu, zein izango litzateke eta zergatik?

- Ortzadarraren kolore guztiak, anitza delako zentzu guztietan.
- Berdea, zuhaitzez inguratuta dagoelako.
- Berdea, inguruko kolore nagusia delako.
- Berdea; natura, ekologia.
- Berdea, iraunkorra delako.
- Berdea, jende itxaropentsua.
- Berdea, parkeak daudelako.
- Berdea, paisaia halakoa delako.
- Berdea: garbitasuna, ordena.
- Urdina eta berdea: garbitasuna.
- Berdea, zainduta eta garbi dagoelako.
- Laranja: garbitasuna.
- Urdina: elkarbizitza, bizitza irudikatuz.
- Gorria: indartsua.
- Gorria, orientatzea erraza delako.
- Arrosa, harremanetan aberatsa delako.

Bidaia, 2030an nahi dugun Legazpira:

Eta animalia bat izango balitz, zein izango litzateke eta zergatik?

- Katua: garbia delako, independentea eta azkarra.
- Orkatza, trebea delako.
- Zaldia: dotorea.
- Astoa: langilea.
- Orkatza: polita.
- Behorra: emakumea, indartsua, segurua.
- Astoa: ez dira hain "asto", emozionalak dira, badakite negar egiten, barre egiten...
- Txakurra: animalia zintzoa da eta denok izan beharko genuke ezaugarri hori.
- Zaldia: laguna, ongi hezia, dotorea.
- Elefantea: handia delako.
- Txoria: nahi duen lekura doalako.

Legazpi berri horrek zein beste lurralderen antza du? Eta zergatik?

- Alemania: energia berriztagarriak.
- Alpeak: armonia.
- Australia: natura, harremanak, aniztasuna.
- Eskozia: paisaia ederrak eta kultura desberdinak.
- Amazonaseko herri indigena bat, naturarekin erabateko lotura duena.
- Suitza, kultura demokratikoa duelako.
- Suitza, garbitasuna, teknologia eta natura.
- Suitza, garbia delako.
- Suitza, berdea delako.
- Suedia, berrikuntza.
- Finlandia, hezkuntza eredugarria.
- Alizia herrialde miresgarrian.

Batzuetan, galdera errazenak edo bitxienak etorkizuneko udalerraren **balioak** eta haren ñabardurak **identifikatzen** laguntzen dizkigute.

Erantzun guztiak jasotzen ditugu, modu egokian aztertzeko eta Legazpi Klima 2030 plana egitean kontuan hartzeko.

Eta tailerraren amaierara iristen ari gara.

5. Bukatzera goaz!

Eta agur esaten dugu honakoa esanez: uda on pasa! Eta bueltara arte!

Irailaren 29an, ostegunean, hemen izango gaituzue zain gure ibilbidean beste urrats bat emateko: dena aurreikusitakoaren arabera baldin badoa, udalerrri gisa gaur garenetik sortzen ari garen eszenatokira iristeko, aurrera egiten lagunduko dizkiguten neurriak eta ekintzak pentsatzeko ordua izango da.

Bitartean, ondo-ondo pasa uda eta umore pixka bat, beti ondo datorrela ...



Eskerrik asko!!!